

STEE-EILAS



Pentsio-erreforma berriaren eskutik, eskubide gehiago desegiten dute

PPren gobernuak, berriro ere, Legebiltzarrari izkin egin eta, Errege-dekretuaren bidea erabiliz, murrizketen beteriko pentsioen erreforma berria inposatu du era azkarrean eta inolako tramite parlamentariarik gabe.

Sistemaren bideragarritasuna izan da baliatu duten aitzakia populazio osoari erasotzeko eskubideak murrizten eta pobreziara eramaten duten eta giza ezberdintasunak areagotzen dituzten neurri berriekin. Oraingoan, erretiro hartzeko eskubideak jaso du murrizketa hori bere atal ezberdinetan, eta pentsioen sistema publikora bideratuta zeuden mila milioika euro desbideratuak izango dira deficit sakratua kitatzeko ahaleginean.

Antza, ez zen nahikoa aurreko PSOEn gobernuak CCOO eta UGT sindikatuekin sinatutako Pentsio-erreforma joan den urtarrilaren 1ean abian jartzea, erretiroa hartzeko adina luzatzen hasteko. Estutu egin behar zen gehiago, zigortu alde aurretiko erretiroa hartzeko era guztiak eta errelebo-kontratua bidez erretiro partziala lortzeko baldintzak. Horretarako, eskuratu beharreko diru kopurua murriztu egin dute, erretirorako aukera bi urtez atzeratu, enpresen ordainak handitu, beharreko kotizazio-urteak gehitu... eskubidea bera ezinezko bihurtu arte, bizimodu duina izateko behar den pentsioa eskuratzeko bizitza laborala luzatzea ezinbestekoa izango delako. Eta hau guztia, enpresek plantilen gartzetzea behar dutenean eta kalean milioika pertsona lanpostu baten bila etsita dabiltzanean, atzerrira joaten edo familiarekiko mendekotasunean egoten behartuta dauden unean.

Hau guztia dela eta, STEE-EILAS-ek, berriro ere, langileekiko adierazi duten errespetu falta salatu behar du. Erretiro sistemaren pribatizatzea, hiritar askoren pobretzea eta lan baldintzak okertzea ahalbideratzen dituzten politika neoliberalekin amaitzea eskatzen dugu. Ildo horretatik, Nafarroako eta EAeko gobernuari, Errege Dekretuko neurri ezberdinek sor ditzaketen ondorioak saihesteko neurri zehatzak exijitzen dizkiegu, gizartearen gehiengo batek inolako zalantzarik gabe eskatzen duena delako.

Aldi berean, guretzat hau izan daiteke une egokia Euskal Herriko instituzio publikoek, era eraginkor batean, erretiro sistema propiorako eskubidea aldarrika dezaten, lorpen horretara hurbilduko gaituzten ekimenak bultzatuz.

STEE-EILAS



Con la nueva reforma de pensiones, acaban con más derechos

Una vez más, el gobierno del PP ha ninguneado al Parlamento, utilizando la vía del Real Decreto Ley para imponer de manera inmediata y sin ninguna tramitación legislativa, una nueva reforma de pensiones repleta de nuevos recortes. La sostenibilidad del sistema ha servido de argumento para atacar a la población con nuevas medidas que recortan derechos, empujan a la pobreza y aumentan las desigualdades sociales. En este caso, ha sido el derecho a la jubilación, en sus diversos aspectos, el que ha sido retocado, de manera de que miles de millones de euros que estaban destinados al sistema público de pensiones serán desviados para atender a la reducción de déficit.

Por lo visto, no era suficiente activar el pasado 1 de enero la reforma de pensiones pactada por el anterior gobierno del PSOE con los sindicatos CCOO y UGT, de manera que se generalizará el retraso de la edad de jubilación. Había que dar una nueva vuelta de tuerca para penalizar el acceso a las diversas modalidades de jubilación anticipada o a la jubilación parcial mediante el contrato de relevo. Para ello se rebajan las cuantías a percibir, se retrasa el acceso en dos años, se aumenta el coste para las empresas, se endurecen los requisitos de cotización necesarios... de manera que se imposibilita en la mayoría de los casos el ejercer dicho derecho porque se necesita alargar su vida laboral para tener una pensión que permita vivir dignamente. Y todo en un contexto en el que las empresas precisan renovación y rejuvenecimiento de plantillas, y en la calle millones de personas esperan desesperadamente un puesto de trabajo y se ven obligados al exilio laboral o a la dependencia de la familia.

Por todo esto, desde STEE-EILAS nos vemos en la necesidad de denunciar, una y otra vez, la falta de respeto hacia la clase trabajadora. Exigimos que cesen de inmediato estas políticas neoliberales que favorecen la privatización del sistema de pensiones, la pobreza de muchos sectores de la población y la penalidad de las condiciones laborales. En esa línea, exigimos a los gobiernos de Navarra y de la CAPV políticas paliativas en relación a las consecuencias de la aplicación de las diversas medidas del Real Decreto, tal y como, de manera indudable demanda mayoritariamente la sociedad.

Igualmente, creemos que es un buen momento, también, para recordar la necesidad de que las instituciones públicas de Euskal Herria reivindicquen de una manera efectiva el derecho a un sistema propio de pensiones y articulen actuaciones que nos sirvan para avanzar hacia su consecución.

22 de marzo de 2013